

# The Givenchiaga Family

Prentsa-txostena

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

B

# The Givenchiaga Family

Erakusketa  
2026.03.28—2027.02.22

Hubert de Givenchy proba bat egiten Avenue Georges-V kaleko 3. zenbakian, 1961



© Tony Vaccaro / Tommy Vaccaro archives

## The Givenchiaga Family

*Desberdintasun baino antzekotasun gehiago dituzte, dirudiena baino askoz ere antz handiagoa dute elkarren artean. Bata zaharragoa da, bestea gazteagoa: oraindik ere, zalantzarik gabe, Givenchiaga familia dira.*  
—Katharine Whitehorn. *The Observer*, 1960

Katharine Whitehorn britainiar kazetariak esamolde hori erabili zuen, Cristóbal Balenciagak (1895-1972) eta Hubert de Givenchyk (1927-2018) aurkeztutako bildumen artean ikusten zituen lotura estilistakoez hitz egiteko. Artikulu berean aipatu zuenez, «*munduko soinekorik ederrenak*» ikusi zituen bilduma haietan.

Sorkuntzen arloan zuten antzekotasun hori bi diseinatzaileak 1953an New Yorken elkartu ondoren hasi zen. Txileko goi-mailako gizarteko kide eta goi-mailako jantzigintzako bezero handi batek bultzatu zuen bilera hori: Patricia López-Wilshaw, hain zuzen. Ordutik aurrera, elkarrekiko errespetuan, enpresa-arloko konplizitatean eta adiskidetasun handian oinarritutako harreman berezi bat sortu zen bien artean.

Haien lanei begiratzen badiegu, batez ere 1956tik aurrera, esan daiteke formetan hurbildu zirela, espiritu berritzaile bera zutela eta moda modu berean ulertzen zutela, edertasuna, harmonia eta dotorezia balio goren izanik.

*Balenciagak eta Givenchyk garaiko joerak markatzen dituzte. Ezagutu Parisko goi-mailako jantzigintzako gizon misteriotsuak. Balenciagak eta Givenchyk estilo dotore eta zirrargarriak sortzen dituzte, eta gainerako moda-diseinatzaileek estilook egokitu edo kopiatzen dituzte. Bi diseinatzaileen lerroen soiltasun denboragabea da haien indarraren gakoa.*  
—Gwen Cowley. *Star Weekly*, 1960

Gainera, antzeko negozio-estrategiak izan zituzten; adibidez, beren desfileak gainerako moda etxeek baino hilabete geroago aurkeztu hasi ziren 1956tik aurrera; beren argazki eta zirriborroak ematen zizkieten hedabideei; beren udako bildumak elkarrekin aurkeztu zituzten New Yorkeko Ambassador hotelean; eta kale berean jarri zituzten beren negozioak 1959tik aurrera (Givenchyren denda Balenciagarenaren pare-parean zegoen, Avenue George V etorbideko 3. zenbakian).

Hubert de Givenchyk benetan miresten zuen Cristóbal Balenciaga. Gainera, goi-mailako jostintzako maisu isil baina oso pedagogikoak ematen zizkion aholkuei arreta handia jartzen zenez, haren hurbileneko ikasle bihurtu zen, haren tailerrean inoiz lan egin ez zuen arren. Horiek horrela, 1968an, Balenciagak erretiroa hartzea erabaki zuenean, Givenchy etxearen esku utzi zituen bere konfiantzazko langileetako eta bere bezero leialenetako batzuk.

«The Givenchiaga Family» erakusketak bi jostunen lanen arteko elkarrizketa bat proposatzen du, agerian jartzeko sorkuntzen arloko antzekotasun horren oinarriak eta Balenciagak transmititu zizkion estilo- eta teknika-ikasgaiak, perfekzioa lortzean eta bilakaera motelean oinarrituak, Givenchyk beretzat hartu eta bere ikuspegitik egokitu zituenak.

*Moda jarraitutasuna da. Zerbait egiten duzu eta, hurrengo denboraldian, hobetzen, perfektzionatzen saiatzen zara... Ez diot: Aurten gaztea izango naiz, edo hurrengo urtean nire bildumak itxura helduagoa izango du. Une bakoitzean nahi dudana egiten dut.*  
—Hubert de Givenchy. *Women's Wear Daily*, 1969

Aldi berean, erakusketarekin omenaldia egin nahi diogu Hubert de Givenchyri, mahai gainera ekarriz *Givenchiaga familian* izan zuen tokia, ez soilik diseinatzaile bikain gisa, baita bere adiskide eta mentore Cristóbal Balenciagaren ondarearen kontserbatzaile gisa ere.



© Tony Vaccaro/Tommy Vaccaro archives

Hubert de Givenchy bere estudioan, 1961

## Erakusketa

*Erakusketarekin omenaldi aurreratua egin nahi zaio Hubert de Givenchyri, bere jaiotzaren mendeurrenagatik. Hain zuzen, ohore handiz omenduko dute jostuna nazioarteko erakunde askok 2027an. Getariako museoak ez du galdu nahi haren bizitza eta sormenaren eta diseinuaren munduari egin zion ekarpena aldarrikatzeko aukera hau.*  
—Igor Uria, erakusketaren komisarioa

Azken urteotan, museoa «Topaketak» izeneko lerro bat ari da jorratzen, aldi baterako erakusketen programaren barruan, eta areto bat du lerro horretarako. Erakusketa, hain justu, lerro horren barruan dago. Helburua da museo hau bisitatzeko esperientzia osatu eta Balenciagaren biografia eta lana sakon ezagutzera bultzatzea, ikuspegi hori zabalduz beste sortzaile, diziplina eta bilduma batzuekiko elkarrizketaren bidez.

Oraingo honetan, museoko bildumen komisario eta zuzendari Igor Uriak Hubert de Givenchyren lana ekartzea erabaki du, goi-mailako jantzigintzako sortzaile ospetsu, Cristóbal Balenciagaren adiskide eta Balenciaga Fundazioaren eta museoaren sustatzaile garrantzitsuen omenez.

Erakusketan, bi egileen 35 lan aurkeztu dira, 1956tik 1972ra bitartean eginak. Givenchyren lan «gonbidatu» gehiago daude, erakusketaren asmoa ez baita konparazio bat egitea, bien arteko loturak eta antzekotasunak azpimarratzea baizik.

Beraz, Cristóbal Balenciagaren 11 lan aukeratu dira, museoaren bildumatik eta Espainiako eta Italiako bi bilduma pribatutatik, Getariako jostunaren ikuspegitik bi egileen arteko elkargune estilistikoaren lerro nagusiak nabarmentze aldera.

Bestalde, Hubert de Givenchyren 24 lan hartu dira. Horietako gehienak markak Parisen dituen artxiboetatik datoz, eta Madrilgo Museo del Traje (Madril) erakundeko bildumatik hartutako lan garrantzitsu batzuk gehitu zaizkie. Bildumaren helburua da ildo estilistiko horiek Givenchyren lanean izan duten bilakaera islatzea eta agerian jartzea zer beste lotura zituen Getariako diseinatzailearekin arlo pertsonalean eta profesionalean.

Erakusketa zabalik egongo da 2027ko otsailaren 22ra arte, Hubert de Givenchyren jaiotzaren 100. urteurrenaren harira.

## Givenchyren hastapenak modaren munduan

*Balenciaga ezagutu izan ez banu, agian ez nukeen inoiz aurkituko modaren esentzia.* —Hubert de Givenchy, 2011

Hubert de Givenchy 1944an joan zen Parisera bizitzera, Arte Ederretako Eskolan ikasi eta modaren lanbidean trebatzeko. Han, Jacques Fath, Robert Piguet eta Lucien Lelong jostun ezagunen tailerretan aritu zen, bai eta Elsa Schiaparelli diseinatzailearen boutiquean ere, 1952an Alfred de Vigny kaleko 8. zenbakian Maison Givenchy etxea zabaldu zuen arte.

Haren lehen bildumak «*Separates*» izena zuen, eta goi mailako jantzigintzako desfileen egutegi ofizialetik kanpo aurkeztu zuen. Kritikak gorapatutako bilduma horretan, aipagarria da «Bettina» blusa ikonikoa, Givenchy berak bere lehen *best seller* gisa ikusi zuena.

Urtebete geroago, 1953an, Cristóbal Balenciaga ezagutu zuen. Hura ezagutzea benetako inflexio puntua izan zen haren ibilbidean, Balenciaga bere inspirazio iturri nagusietako bat izan baitzen hortik aurrera, hala sormenarekin lotutako erabakietan nola enpresa-arlokoetan.

Erakusketak agerian jartzen du garai hartako modako aldizkariak nolako harrera egin zieten *couturier* hasiberriaren proposamenei, garaiko editorialak, ilustrazioak eta 1952ko argitalpen historikoen irudiak aurkeztuz.

Era berean, Bernard Blossac (1917-2002) moda-ilustratzaile handiak 1952an eta 1954an egindako zirriborro batzuk bildu ditugu, Givenchyren hastapenetako espirtu berritzaile eta nahiko urratzailea jasotzeko. Hasiera horren ondorioz, modaren *Enfant terrible* ezizena irabazi zuen.



© Givenchy, Paris

Zaku eta tunika lerroen zirriborroak, 1957

## Elkartzen diren estiloak

*Paris Givenchyren eta Balenciagaren silueta berrien zain dago. Asteburu honetan, modaren munduaren urrezko galdera da: Givenchyren gaurko eta Balenciagaren astearteko desfileetan ikusiko al ditugu modaren munduak oraindik Parisko bildumetan aurkitu ez dituen silueta berriak?* —John Fairchild, *Women's Wear Daily*, 1960

Diorren New Look delakoak 1950eko hamarkadaren erdialdean finkatu zuen silueta hedatutik harago joan zen Cristóbal Balenciaga, bolumenaren, gorputzaren askatasunaren eta jantziaren kutsu arkitektonikoaren alde eginez.

Balenciagak askotariko ikasgaiak helarazi zizkion Givenchyri: tunikaren dotorezia soila, blusa-erako bizkaraldean berariazko makurdura, *babydoll* soinekoaren trapezoide-formako geometria, jantzi eta berokien joskintza bikaina, brodatuen aberastasuna, elementu inguratzaileen askatasuna eta gaueko soinekoen lerro garbi eta itxuraz sinpleen arkitektura, besteak beste.

Guztiak oinarrizko maxima batetik datoz: ehuna ulertu eta maitatzea. Horien atzean daude, gainera, askatasun eta independentzia irrika eta perfekzioa lortu arte ideia bat lantzeko filosofia.

Givenchyk ikasgai horiek bere estilora egokitu eta bere bilakaera propioa eman zien, segur aski bestelako emakume bat zuelako buruan, gazteagoa, baina Balenciagaren bezeroen gizarte-estatus berekoa eta edertasuna eta harmonia berdin-berdin estimatzen zituena.



© Givenchy, Paris

Givenchy Haute Couture  
1958ko otsaila, 2240 eta 2235 modeloak

## Lerro iraultzaileak: tunika, zakua eta babydolla

Erakusketa hasteko, Givenchyk Balenciagaren lanaren bereizgarri diren ildo iraultzaileen inguruan (tunika, zakua eta babydolla) egindako interpretazioak aurkezten dira.

Garaiko egunkarien arabera, Cristóbal Balenciagak 1955eko otsailean aurkeztu zuen tunika benetako iraultza izan zen. Bi pieza osatuta zegoen, eta silueta lirain eta itxuraz eroso bat sortzen zuen, emakume moderno bati egokitua, zeinak, aldi berean, dotorezia- eta sofistikazio-keinuak indartzen baitzituen.

Hurrengo bildumetan argi geratu zen beste diseinatzaile batzuegan izan zuen eragina. Hubert de Givenchyk bere bildumako modeloetan txertatu zituen tunika lerroaren zenbait ezaugarri, siluetaren ardatza nabarmenduz belaunak inguratzen dituen gona baxuarekin eta gorputz gainean mugitzeko askatasuna bultzatuz.


Balenciagaren hurrengo bildumetan, zakuak eragin argia izan zuen, eta horrek kritika eta, aldi berean, desioa eta miresmena eragin zituen. Zakuaren silueta inguratzailea da eta emakumeen gorputza bakartzen du, feminitatea dotoreziaz eta fintasunez indartzearekin batera.

Givenchyren proposamena, berriz, lerrokatuago zegoen belaunaldi berriekin, puntuzko ehunean egindako eguneko modelo bat sortu baitzuen, lepoa nabarmentzen zuena eta aldi berean dotorea eta eroso zena.

1957tik aurrera, bi jostunek aurkeztutako modeloetan, asimetria nabarmena ikus zitekeen behealdean: Balenciagaren kasuan, azpilduraren atzeko alde aurrekoa baino luzexeagoa da, eta Givenchyren lanean, berriz, alde handiagoa dago bien artean. Egunkarietan, modelo horiek «pauma motako dandarra» zutela esaten zuten, eta horiek daude jasota erakusketan.

Siluetaren pixkanakako eboluzio horretatik zenbait modelo polemiko eta miretsi sortu ziren, esaterako, «babydoll» soinekoa 1958. urtean. Pieza horretan, bi diseinatzaileek kanpoko eta barruko silueten artean aireak duen garrantzia azpimarratzen zuten.





© Givenchy, Paris

## Teknikaren garrantzia

Siluetaren iraultza horretarako, beharrezkoa izan zen domeinu tekniko handia izatea. Balenciaga teknikaren maisua zen, eta joskintza zen (berokiak, jantziak eta jakak) haren esperimazio-laborategia.

Bere modeloen sorbalden, mahuken, bizkarraldearen eta lepoaren lerroek estilo jakin bat dute, Balenciagaren marka. Garai hartako egunkarien arabera, Hubert de Givenchyk Balenciaga maisuaren tradizioan oinarrituta diseinatu eta gauzatzen zituen bere modeloak, silueta dotore bat eraikitzeke funtsezko puntuetan jarriz begia.

1960ko hamarkadan, emakumeen siluetaren abstrakzioak presentzia irabazi zuen bi jostunen bildumetan. Balenciagak ia eskulturala zen soiltasun minimalista bat sustatzen zuen. Givenchyk ere diseinu abstraktua gauzatzen zuen, baina, horretan, goi-mailako jantzigintzako bezero berriek eskatzen zioten mugimendu-askatasuna nagusitzen zen.

Elementu inguratzaileak eta zeharkako mozketak ezinbestekoak dira gaueko soinekoen silueta dotoretan. Ehun aberatsen azpian, teknikaren eta ebaketaren ezagutza bikaina ezkututzen da.

Bi diseinatzaileentzat materiak garrantzi handia zuen: «ehuna ulertu eta maitatzea» ezinbestekoa zen. Janie Samet kazetariak «Francs-tireurs de la mode, Givenchy et Balenciaga» hitzak erabiliz izendatu zituen jostunek modu estrategikoan argitzen eta nabarmentzen zituzten gaueko jantziak, brodatu oparoak erabiliz. Horietan, jantzigintzako artisauek erabiltzen zituzten motibo eta materialen sofistikazioarekin uztartzen ziren bi diseinatzaileek aurkeztutako silueta diskretu eta dotoreak.

## Rachel «Bunny» Mellon, bien bezero eta laguna

Balenciagak eta Givenchyk harreman pertsonal eta profesional estua izan zuten eta, horri esker, Rachel «Bunny» Mellon, Patricia López-Wilshaw,, Audrey Hepburn, Teresa Berganza, Matilde Ucelay eta Sonsoles Diez de Rivera izan zituzten bezero eta lagun biek.

Rachel L. Mellon, «Bunny» ezizenaz ezaguna, Ipar Amerikako XX. mendeko burgesiako dama garrantzitsuenetako bat izan zen. Filantropoa, arte-bildumagilea, lorategien diseinatzailea (Etxe Zuriko lorategiena, besteak beste), Kennedy familiaren lagun pertsonala eta Paul Mellon mezenas handiaren emaztea zen, eta jostunaren bezero aberats, sentikor eta esklusiboen benetako arketipoa irudikatzen zuen.

Bunny Balenciagaren bezero leialenetako bat izan zen, eta geroago Givenchyrena ere bai. Balenciagak bere goi-mailako joskintzako etxea ixtea erabaki zuenean, bereizgarri zuen eskuzabaltasunaz, Mellon aurkeztu zion Givenchyri. Eta, hala, hainbat hamarkadaz luzatuko zen harremana hasi zen. Mellon bezero bat baino gehiago zen Givenchyrentzat; hain zuzen, lagun handia zuen. Biek maite zituzten arte garaikidea, arkitektura eta paisajismoa. Hari esker jarri zen frantziar diseinatzailea abangoardiako hainbat bildumagilerekin, galeristarekin eta artistarekin harremanetan.

Givenchyk berak deskribatu zuen Rachel L. Mellon nortasuna *Women's Wear Daily*ri egindako adierazpenetan: «Cristóbalek aurkeztu zidan eta berehala konektatu genuen; segituan liluratu nintzen haren kulturaz, irudimenaz eta bereizgarri zuen sormenaz. Bunnyk ez dauka zerikusirik beti saihestu izan ditudan mundu honetako emakume aberats eta alfer horiekin. Ikaragarri motibatzen naute haren elkarrizketak eta pintura modernoaren inguruan duen ezagutza handiak. Zaletasun asko ditugu amankomunean. Gainera, Bunnyrekin dena jolas bihurtzen da, eta gure harremana gozoki ludikoa da».

Rachel L. Mellon beldumak 600 erreferentziatik gora ditu eta 2014an iritsi zen Cristóbal Balenciaga Museora, legatu gisa. Bilduma hori oinarri hartuta komisariatu zuen Hubert de Givenchyk 2017an egindako erakusketa bat, Getariako museoak ekoitzia.

Erakusketan badira Mellon andrearenak izandako zenbait pieza, hala Balenciagak nola Givenchyk egindakoak, bai eta biek egindakoren bat ere, esaterako, artilezko sarga urdin ilunean egindako jantzi-joko bat, beroki batez eta gona batez osatua, lerro zuriko *quadrillé* bat duena. Pieza hori Balenciagaren 1968ko bildumako 10. modeloari dagokio, baina Givenchyren etxeak egin zuen 1969an Mellon andrearentzat, Mme. Felisaren tailerrean. Horrek guztiak agerian jartzen du nola bezeroa, tailerreko nagusia eta patroia bera enpresa batetik bestera igaro ziren.



## Audrey Hepburn, Givenchyren musa

Hubert de Givenchyren eta Audrey Hepburnen arteko harremana XX. mendeko modaren eta zinemaren arteko lankidetzarik enblematikoenetako bat da.

1953an ezagutu zuten elkar, aktore gazteak Givenchyren tailerra bisitatu zuenean, Billy Wilderrek zuzendutako *Sabrina* filmerako jantzien bila zebilela.

*Sabrina* filmaren arrakastak aktorearen irudi publikoa dotorezia modernoaren sinbolo gisa finkatu zuen, eta hainbat hamarkadaz luzatuko zen lankidetzat artistiko baten hasiera markatu zuen.

Hepburnek, bere lan-ibilbidean, Givenchyren hainbat sorkuntza jantzi zituen pantaila barruan zein kanpoan; Givenchyk, bere aldetik, zinemaren eta modaren ikono bihurtuko ziren zenbait soineko diseinatu zituen Audreyrentzat.

Erakusketan aktorearen bi soineko ikoniko daude: Audrey Hepburnek Billy Wilderren 1956ko *Love in the Afternoon* filmean jantzitako soinekoa eta *Breakfast at Tiffany's* filmaren hasierako eszenan zeraman *little black dress* modeloa, zeina estiloaren ikono unibertsal bihurtu baita orduan, eta Madrilgo Jantziaren Museoaren bilduman baitago.

Zuten harreman profesionalaz harago, adiskide handiak ziren, elkar miresten zutelako eta sentsibilitate estetiko berak lotzen zituelako. Hepburn diseinatzailearen musa eta haren estiloaren enbaxadorerik agerikoena bilakatu zen. Gainera, Givenchyren lanen xede ziren emakumeak hezurmamitzen zituen, ezin hobeto.

Audrey Hepburn *Breakfast at Tiffany's* filmean, 1961



## Moda arloko editoreak, estilo komun baten bultzatzaile

Carmel Snow, Madame Bousquet, Diana Vreeland eta Bettina Ballard moda-arloko editore handiak bi diseinatzaileen aliatu eta estilo-bitartekari bihurtu ziren. Lehenik, Cristóbal Balenciagaren lanek liluratu zituzten eta, gero, haren ondorengo duin bat aurkitu zuten Hubert de Givenchyren.

Emakumeek oso garrantzitsuak izan ziren goi-mailako jantzigintzaren eta publikoaren arteko bitartekaritzan, diseinatzaileen proposamen berriak interpretatu eta aldi oso bateko gustua zehazten lagundu zuten eta.

*Vogue*, *Harper's Bazaar* eta *Femme Chic* aldizkarietan argitaratzen zituzten orrialdeek, emakumeen siluetaren eraldaketak dokumentatzeaz gain, nabarmen lagundu zuten bi diseinatzaileen irudi publikoa eraikitzen eta «Givenchiaga familiaren» kontzeptua sendotzen.

Hubert de Givenchy 1955eko azaroan, Carmel Snow eta Marie-Louise Bousquet moda-erredaktoreei bere bilduma aurkezten



Francis Pages/Paris Match © Getty Images

## Hubert de Givenchy, Balenciagaren legatuaren zaindari

*Balenciaga nire erlijioa zen. Niretzat, Balenciaga eta Jaungoikoa soilik zeuden.*  
—Hubert de Givenchy, *Women's Wear Daily*, 2007

Balenciaga hil ondoren, Hubert de Givenchyk bere lagun eta mentorearen omenez aurkeztu zuen 1972ko udako bilduma, eta horietako modelo batzuk aurki daitezke erakusketa honetan.

Bere bizialdi osoan eta jendaurrean emandako elkarrizketa eta adierazpen guztietan, Givenchyk beti hitz egin zuen errespeturik eta miresmenik handienaz Balenciagari buruz, eta hil arte egin zuen lan goi-mailako jantzigintzaren maisuaren legatua bizirik mantentzeko; hain zuzen, Cristóbal Balenciaga Museoaren sustatzaile nagusietako bat izan zen.

Balenciagak diseinatutako piezen bilduma pertsonal handi bat bildu zuen Hubert de Givenchyk. Bildumazaletasuna gorabehera, helburu argi bat zuen horrekin: diseinatzailearen obraren lekukotza materialak babestea, ez zitezen sakabanatu eta denboraren poderioz galdu.

Givenchyrentzat, jantziok modaren historiaren benetako dokumentuak ziren, bai eta Balenciagaren lanaren bereizgarri izandako zorrotasun teknikoaren eta berrikuntza formalaren adibide ordezkaezinak ere.

Konpromiso horren azken mugari gisa, parte hartze erabakigarria izan zuen Cristóbal Balenciaga Fundazioaren sorreran. Fundazioa diseinatzailearen lana aztertu, zaindu eta hedatzeko sustatu zuten, eta 2011n museo inauguratu zen. Dohaintzan eman zizkion museoari Balenciagaren jantzien bilduma eta gaur egun museoan gordetzen diren 450 moda-aldizkari historikoen bilduma handia.


Besteak beste, haren dohaintza izan zen 1960ko gaueko soineko bat, Napoliko gros ehun horian egina, txenilazko lore brodatutakoa, Cristóbalek berak Hubert de Givenchyri bere urtebetetzeagatik oparitua.

2018an hil zen arte, Givenchyk aktiboki bultzatu zituen museoaren ekimenak, eta bere adiskide eta mentorearen obrari buruzko erakusketa-proiektuetan parte hartu zuen. Hala, gaur egun modaren historiaren parte garrantzitsu bat den denboraz gaindiko leialtasuna berretsi zuen.

## Biografia

- 
- 1927-1952 Hubert James Taffin de Givenchy 1927ko otsailaren 20an jaio zen Beauvaisen, Frantzia. 1944an Parisera joan zen bizitzera, Arte Ederretako Eskolan ikasi eta modaren munduan trebatzeko.
- Urte horietan, Jacques Fath, Robert Piguet eta Lucien Lelong jostunen tailerretan aritu zen lanean, Elsa Schiaparelli diseinatzailearen boutiquean zuzendari sortzaile bihurtu aurretik. 1952an goi-mailako jantzigintzako etxe bat zabaldu zuen, rue Alfred de Vigny kaleko 8. zenbakian.
- Bere lehen bilduma, «Separates» izenekoa, egutegi ofizialetik kanpo aurkeztu zuen, eta berehala goraiatu zuen kritikak. Bildumako piezen artean dago «Bettina» blusa ikonikoa, jostunaren lehen arrakasta komertzial handia.
- 
- 1953-1971 1953an Cristóbal Balenciaga ezagutu zuen New Yorken, eta hura ezagutzeak sakon markatu zuen bere lan-ibilbidea.
- Urtebete geroago, Audrey Hepburn Givenchyren tailerrera joan zen Billy Wilderren *Sabrina* filmeko jantziak eskatzera. Hala, aktorea jostunaren musa bihurtuko zuen lankidetzak artistiko eta pertsonal bat hasi zen.
- 1957an «De» eta «L'Interdit» lurrinak kaleratu zituen, azkena Hepburnen omenez egina.
- 1968an, Balenciagak bere lagun eta bezero Rachel «Bunny» Mellon aurkeztu zion, eta harekin adiskidetasun- eta lankidetzak harremana izan zuen ordutik aurrera, hainbat hamarkadaz.
- 
- 1972-2018 Balenciaga 1972an hil ondoren, «Hommage à Balenciaga» bilduma aurkeztu zuen.
- 1980ko hamarkadatik aurrera, hainbat aitortpen jaso zituen nazioartean, besteak beste, New Yorkeko Fashion Institute of Technology erakundeak 1982an haren omenez egindako atzera begirako erakusketa.
- 1988an, LVMH taldeari saldu zion Givenchy marka, baina etxearen zuzendari sortzaile izaten jarraitu zuen, 1995ean erretiratu zen arte.
- Hurrengo urteetan, indar handiagoz aritu zen Balenciagaren legatuaren kontserbatzaile lanetan eta aktiboki parte hartu zuen nazioarteko hainbat museo-proiektu eta erakusketatan.
- 2018ko martxoaren 10ean hil zen, Neuilly-sur-Seinen.

Hubert de Givenchy Rachel L. Mellon andrearekin, National Gallery museoan, 1983



# Cristóbal Balenciaga Museoa

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoa. Oso bilduma zabala da —5.100 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak XX. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.



© Cristóbal Balenciaga Museoa / Manuel Ojuturo

Zuriñe Abasolo Izarra  
Komunikazio arduraduna

[zurine.abasolo@fbalenciaga.com](mailto:zurine.abasolo@fbalenciaga.com)

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria  
T +34 943 008 840  
info@crislobalbalenciagamuseoa.com  
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

# B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

